ELKARLAN ESTUDIOA

URBANIZATZE PROIEKTUA – PROYECTO DE URBANIZACIÓN

IRURAKO SAN MIGEL PLAZAKO IRISGARRITASUNA ERABERRITZEA ETA OINEZKOENTZAKO EGOKITZEA PLATAFORMA BAKARREAN, ARGITERIA PUBLIKOKO, UR HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO SAREAK EGOKITU ETA HOBETZEA, ETA HIRI-ALTZARIAK BERRITZEA

REFORMA DE ACCESIBILIDAD Y PEATONALIZACIÓN EN PLATAFORMA ÚNICA, ADECUACIÓN Y MEJORA DE REDES DE ALUMBRADO PÚBLICO, ABASTECIMIENTO DE AGUA, SANEAMIENTO Y MOBILIARIO URBANO EN PLAZA SAN MIGEL DE IRURA

SAN MIGEL PLAZA

IRURA (GIPUZKOA)



2025. URRIA
OCTUBRE 2025

ARKITEKTOAK-ARQUITECTOS

XABIER BERASATEGUI
ELISABETH ENA

JABETZA - PROMOTOR

IRURAKO UDALA

ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

ELKARLAN ESTUDIOA

URBANIZATZE PROIEKTUA – PROYECTO DE URBANIZACIÓN

IRURAKO SAN MIGEL PLAZAKO IRISGARRITASUNA ERABERRITZEA ETA OINEZKOENTZAKO EGOKITZEA PLATAFORMA BAKARREAN, ARGITERIA PUBLIKOKO, UR HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO SAREAK EGOKITU ETA HOBETZEA, ETA HIRI-ALTZARIAK BERRITZEA

REFORMA DE ACCESIBILIDAD Y PEATONALIZACIÓN EN PLATAFORMA ÚNICA, ADECUACIÓN Y MEJORA DE REDES DE ALUMBRADO PÚBLICO, ABASTECIMIENTO DE AGUA, SANEAMIENTO Y MOBILIARIO URBANO EN PLAZA SAN MIGEL DE IRURA

SAN MIGEL PLAZA

IRURA (GIPUZKOA)



2025. URRIA
OCTUBRE 2025

ARKITEKTOAK-ARQUITECTOS

XABIER BERASATEGUI
ELISABETH ENA

JABETZA - PROMOTOR

IRURAKO UDALA

MEMORIA

ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

MEMORIA

1.- PROIEKTUAREN XEDEA

Proiektu honen helburua Irurako San Migel plazako irisgarritasuna eraberritzea eta oinezkoentzako egokitzea plataforma bakarrean, argiteria publikoko, ur hornidurako eta saneamenduko sareak egokitu eta hobetzea, eta hiri-altzariak berritzea da.

2.- PROIEKTUAREN ENKARGUA. AGENTEAK

Irurako Udalak (IFK: P-2005000A) enkargatutako proiektu hau "Elkarlan Estudioa, S.L.P." -k idatzi du (IFK: B10555746), honako arkitekto hauek osatzen dutelarik:

Xabier Berasategui Aseguinolaza
EHAEOko arkitektoa, 279110 zk.
NAN: 15.377.303-D

Elisabeth Ena Arbulu
EHAEOko arkitektoa, 314560 zk.
NAN: 15 390.974-P

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

3.- AURREKARIAK

Irurako Udalaren eta San Migel elizaren artean dagoen espazio libreari eta inguruko kale eta espazio libreei, kale Nagusiarekin bat egin arte, San Migel Plaza deitzen zaio. Halaber, udaletxearen atzealdeko fatxada ondoan dagoen “plaza” triangeluarra ere barne hartzen da.

Irurako Udalak espazio hauen urbanizazioa berritzeko beharra planteatu du, gaur eguneko irisgarritasuna mugatzen duten oztopo arkitektonikoak ezabatuz, eta guzti hau “plataforma” edo espazio bakarra bihurtuz.

Halaber, espazio guzti hauen peatonalizazioa planteatzen da, ibilgailuen sarrera behar beharrezkoei mugatuz, hauek Iparraldeko aldetik pasatzeko bidea mantenduz, “Agirreko Gaina”-ko baserrietara eta eraikinetara sartzeko bidea bait da.

Udaletxearen eta San Migel Elizaren artean dagoen espazio/plazaren zati bat eta baita plaza honek Kale Nagusiarekin dituen konexioak interbentzio honetatik kanpo uzten dira.

Eremu osorako proiektu bakarra idatzi bada ere, sei interbentzio-eremu bereizten dira, esku hartzea “fase”ka egin ahal izateko.

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

4.- EGUNGO EGOERA

Udaletxearen eta San Migel elizaren arteko plaza.

Espazio hau galtzada harriz-zolatuta dago, bi tonu desberdinetan, irudi geometrikoak osatuz, hau da, “eraztun zentrokideak” eta eraztunen artean “uhinak”. Galtzada harriaren gainazala irregularra da.

Espazio honen erabilera oinezkoentzako da soilik. Ibilgailuentzako erabilera duen eremutik, zintarri, zuhaitz, banku eta luminarien lerrokaduraren bidez bereizten da.





Udaletxearen atzealdeako Plazatxoa.

Udaletxearen atzealdeko fatxada, Kale Nagusia eta ibilgailuen sarreraren artean dagoen eremuan plaza triangeluar txiki bat dago, non ura edateko monolito-itxurako iturri bat nabarmentzen den. Plaza honen sarbideak hirigintza oztopoak ditu, bi aldeetan eskailerak bait ditu.







Kale Nagusitik udaletxerako ibilgailuentzako sarbidea.

Tarte hau kale "normala" bailitz egituratuta dago, espaloiak alde bietan eta asfaltatutako errepidea erdian. Espaloia etxebizitzen arkupean zabaltzen da. Hondakin ontziak kalearen behealdean daude, Kale Nagusiarekin topo egiten duen tokian.



Kale horrek gora egiten du Udaletxearen fatxada aurrera iritsi arte. Puntu honetan errepidea zabaldu egiten da eta gorantz jarraitzen du, ikastolaren eraikinaren aurrean lorontziak dituen plaza txiki batera iritsi arte.



Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

Puntu honetan bidea bitan banatzen da: ezkerrera eta eskuinera. Eskerrerantz joanda San Migel Eliza inguratu eta Kale Nagusiarekin bat egiten du. Eskuinerantz joanda, Irurako herrigunetik irten eta "Agirreko Gaina" auzora doa.







Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

Hiri altzaria anitza da. Atzeko plazatxoan, estilo klasikoko banku luzeak, "alfonsino" estiloko argiztapena, aparkalekuak mugatzeko pibotak, egurrezko landareontziak eta iturri publikoa kokatzen dira. Udaletxearen atzekaldeko plaza eta Kale Nagusiaren mugan autobus-geltoki baten markesina bat dago. San Migel Elizaren alboko fatxadan harrizko banku luze bat dago.

Bideak asfaltatuta daude. Udaletxearen eta Elizaren artean dagoen plazako zorua harri naturalezko galtzada harriz egina dago. Ikastolaren aurreko zorua inprimatutako hormigoiaz eta baldosa hidraulikoekin egina dago. Udaletxearen atzeko plaza eta oinezkoentzako bidea hainbat motatako baldosa hidraulikoz egina dago.

Azpiegiturei dagokienez, Inkolan enpresari kontsulta bat egin zaio (erreferentzia: SI2401219), egungo elektrizitatearen, gasaren, uraren, telekomunikazioen eta saneamendu-drainatzearen sareen trazadura ezagutzeko. Herriko argiteria sareari eta udal saneamendu eta drainatze sareei buruzko informazioa Irurako Udalak eman du.

Informazioa guztia jaso ondoren, sare guztiak “in situ” egiaztatu dira, eta kutxeta guztiak banan banan ireki eta berrikusi dira.

Iberdrola, Telefonica, Euskaltel eta Nortegas enpresei Udalak egingo dituen obren berri eman zaie gauzatuko diren obrak aprobetxatuz sareak eraberritu, hobetu edo/eta handitu ahal izateko erreformak planteatu dezaten. Guztiek erantzun bera eman dute, hau da, ez dagoela aldaketa beharrik.

ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

Azalerak. Banaketa zonatan

Urbanizazio-proiektuaren eremu guztiaren azalera, planoetan islatzen denaren arabera, 3.090,69 m^2-koa da, eremu desberdinetan banatuta, honako azalera hauekin:

1. Eremua	487,33 m^2
2. Eremua	1.550,10 m^2
3. Eremua	205,73 m^2
4. Eremua	304,61 m^2
5. Eremua	348,92 m^2
ZP Eremua - Portxea	194,00 m^2
GUZTIRA	**3.094,69 m^2**

ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.
Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

5.- PROPOSAMENA

Antolamendu orokorra – jarduteko irizpideak

San Migel Plaza-ren berrurbanizazioaren garapenean aurreikusitako jarduketa-irizpide orokorrak honako hauek dira

A/ Esku hartu behar den eremua oinezkoentzako prestatu. Oinezkoek ibilgailuekiko lehentasuna izatea.

B/ Kaleak eta plazak maila berean berrurbanizatzea, koskarik gabe.

D/ Hiri-altzariak berritzea eta osatzea.

E/ Azpiegiturak berritzea eta osatzea. Argiteria hobetzea.

F/ Hirigintza-oztopoak ezabatzea. Irisgarritasuna.

G/ Bidegorrien sare lokala ordenazioan integratzea.

H/ Herriko plazak Irurarekiko duen mugikortasuna eta loturak hobetzea. GI-3650 errepidearen gainean dagoen Kale Nagusiko zebrabidea hobetu eta handitzea.

5.A. Oinezkotzea

Oinezkoen erabilera sustatzen da, kaleei irizpide horrekin bat datorren azaleko tratamendua eginez kaleei. Eskualdeko bidegorria eta Agirreko Gainatik/Gainaraino ibilgailuen nahitaezko pasabidea integratuko dira.

5.B Berrurbanizazioa

Proiektuaren eremuko kaleak bere osotasunean berrurbanizatuko dira. Bertan espaloi eta bide guztiei akabera bateratu eta berriak emango zaizkie.

5.D Hiri-altzariak

Antolamenduko hiri-altzari guztiak berriztuko dira, banku, paperontzi, aparkalekuak eta abar.

5.E Azpiegiturak berritu.

Proiektuaren eremuko drainatze-sarea berriztuko da, hodi zaharren tarteak ordezkatu eta sarea osatu aurreikusitako antolamendu berrira egokitzeko.

Argiteri publikoko sarearen zati handi bat eta proiektuaren eremuko luminariak ere berriztuko dira.

5.F Hirigintza-oztopoak kentzea. Irisgarritasuna

Hirigintza-oztopoak kenduko dira eta proiektuaren ingurunearen irisgarritasuna konponduko da. Antolamenduko espazio guztiak nibelatuko dira, eta kalearen egungo zintarriak eta udaletxearen atzeko plazatxoko eskailera-mailak kenduko dira. Kale Nagusiko zebrabidea handitu egingo da, goranzko kalearen hasierarekin bat egiten duen tokian (GI-3650 errepidearen gaineko zebrabidea).

5.G Bidegorrien sare lokala ordenazioan integratzea

Bidegorria ordenazioan eta zebrabide berrian txertatzen da. Bidegorriaren seinaleztapena Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek ezarritako irizpideen arabera finkatu da.

5.-H/ Plazaren lotura eta mugikortasuna, Irurako herriarekin hobetzea. GI-3650 errepidearen gainean dagoen Kale Nagusiko zebrabidea hobetzea eta handitzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuari kontsultatu ondoren, proiektuan GI-3650 errepidean zebra-bide altxatu berri bat aurreikusten da. Bidegorria ordenazioan integratuz gero, plaza eta Irura herriaren arteko lotura eta mugikortasuna hobetzen da.

6- AZPIEGITURAK

Sareen egoeraren arabera, esku-hartze maila desberdinak planteatzen dira:

6.1.- Edateko uraren hornidura

Egungo sareko tarte zehatz batzuk aldatzen dira. Alde batetik, iturriarentzako edateko uraren hargunea berregiten da eta atzeko plazako puntu berri batera eramaten da. Halaber, San Migel elizaren elizpearen ondoan edateko uraren puntu berri bat egitea ere aurreikusten da, udalaren erabilerarako. Eta GI-3650 errepidearen azpitik doan edateko uraren tartea berritu egiten da, aurreikusitako zebrabide berriaren azpiko zatian. Kutxatilen estalkien kota zoladura berriarekin berdintzen da.

6.2.- Drainatzea

Egungo drainatze-sarearen zati batzuk berritzen dira, oso zaharrak direlako. Halaber, egungo sarea osatu eta antolamenduak dituen baldintza berrietara egokitzen da.

Inguruko lurretatik datozten euri-uren etorrera mugatzen da antolamenduarekin lotzen diren bideen goikaldean drainatze-kanaletak jarriz. Antolamenduaren gainazaletik euri-uren ibilbidea ere mugatu egiten da, distantzia txiki bakoitzean urak biltzen dituzten zeharkako zenbait kanaleta kokatuz.

6.3.- Saneamendua

Sare honetan ez da esku hartzerik aurreikusten, gauzatu beharreko drainatze-sare berriarekin gurutzatzeak eta kutxatila-estalkiak nibelatzeko jarduerak izan ezik.

6.4.- Energia elektrikoa

Ez da inolako esku-hartzerik aurreikusten sare horretan, kutxatila-estalkiak nibelatzea izan ezik.

6.5.- Telefonica

Ez da inolako esku-hartzerik aurreikusten sare horretan, kutxatila-estalkiak nibelatzea izan ezik.

6.6.- Euskaltel

Ez da inolako esku-hartzerik aurreikusten sare horretan, kutxatila-estalkiak nibelatzea izan ezik.

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

6.7.- Nortegas

Ez da inolako esku-hartzerik aurreikusten sare horretan, kutxatila-estalkiak nibelatzea eta sarea identifikatzeko xaflak birjartzea izan ezik.

6.8.- Argiteria publikoa

Berrikuntza honekin argiztapen uniformeagoa lortzen da. Proiektuaren eremuaren barruan dagoen hiri-argiztapena berritzen da, hainbat motatako argiteriarekin:

Atzeko plazatxoan eta udaletxeko sarbiderainoko goranzko bidean, Kuma SA 3000k 49w modeloko argi berriak planteatzen dira, 5950 lumenekoak, “Simon” etxekoak. Halaber, Ikastolaren aurreko plazatxoak ibilgailuen pasabidearekin bat egiten duen puntuan dauden bi luminarietarako ere eredu bera proposatzen da.

Plaza nagusiko zuhaitzen artean dauden egungo luminariak berritzea planteatzen da, zutabe klasikoak mantenduz (baina egoera txarrean daudenak udaletxearen atzeko plazatxoan desmuntatzen direnengatik ordezkatuz). Ekipoak ordezkatzen dira, “Simon” etxearen Berlin, SA 3000k 54 w modelokoak jarriko dira, 7120 lumeneko argi-fluxuarekin.

Kale aldera ematen duen etxebizitza-eraikinetako fatxadako izkinaren gainean, eraikinaren hormatik beso baten bidez “Simon” etxearen Nash S RJ 3000k 24w 3630 lumen modeloko argi bat planteatzen da.

Zebrabide altxatu berria argiztatzeko, 6010 lumen dituzten Kuma RG 3000k 49w modeloko 2 argi planteatzen dira.

Etxebizitzetako arkupeen eta udaletxeko elizpearen argiteria ere osatzen da. Kutxatila-estalki guztiak nibelatzen dira.

Argiteriaren kanalizazio berriak lurpetik joango dira. Hodiak polietilenozko bi hormakoak izango dira. Kanpotik uzkurtua eta barrutik leuna, 110 mm-ko diametrokoak.

Argi bakoitzaren zutabearen oinean kutxatila bat egongo da. Sareen gurutzetan eta norabide aldaketetan ere kutxatilak jarriko dira. Zutabearen oinean, kutxatilaren barruko neurria 40 x 40 zm-koa izango da, eta sareen gurutzetako eta norabide aldaketetako kutxatilak 60 x 60 zm-koak izango dira. Kutxatiletan eta maniobra-koadroaren oinetan kobrez estalitako altzairuzko pikak sartuko dira lurrean. Hauek 2 m-ko luzera izango dute, 35 mm^2-ko sekzioa duen kobre biluzizko lotune batekin konektatuta, lerro jarraitu bat osatuz, masa eta elementu metalikoak konektatzeko.

Gaur egun badago maniobra-koadroa. Zirkuitu berri guztiek 380 voltiotara 6 mm^2-ko sekzioa izango dute, PVCzko estaldura eta 1000v, RV-06/1 KV-ko isolamendua.


Instalazioa eta neurtzeko ekipoak gaueko tarifa kontratatzeko egokituko dira.

Kable eroaleen sekzioa aurreikusitako elementuek behar duten adina energia garraiatzeko kalkulatu da. Karga puntu bakoitzean lanpararen potentzia nominala 1,80 bider gaindimentsionatu da, horrela, tentsio-erorketa puntu okerrenean jatorriko tentsioaren % 3 baino txikiagoa izango da. Zirkuitu bakoitzak bi konektore dituen kableatu bikoitza izango du. Konexioak egiteko, barruan borna-konexioak eta fusibleak dituzten kaxa estankoak erabiliko dira, CLAVED motakoak edo antzekoak.

ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.
Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

Jarraian, proiektuaren eremuaren irudi edo "rendering" bat erantsi da, lortzen den argitasunarekin. Bertan ikusten da lortzen den argitasuna, oro har, 20 luxetik gorakoa dela.

Proiektuaren eremuaren irudia



ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.
Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

7.- ERAIKUNTZA-SISTEMA. MATERIALAK

Antolamenduaren diseinu nagusia (erdiko lerroa eta zerrendak) hainbat dimentsiotako granito harrizko zenefen bidez definitzen da:

Erdiko lerroko zenefak eta zeharkako harlauzen neurria 30 x 40 x 6 zm-koak dira.

Aguirreko Gainatik ibilgailuak igarotzeko "korridorea" mugatzen duten alboko bi zerrendako harlauzak 50 x 40 x 6 zm-koak dira.

Ordenazioko arrapala eta eskaileretan, mailagainek 4 zm-ko lodiera dute, eta tabikak, berriz, 3 cm-ko lodiera.

Zenefek 2,5 zm-ko lodiera duten asfalto urtuan akabera duten lurzoru zerrendak enmarkatzen dituzte. Asfaltoa hormigoizko zolata baten gainean isurtzen da:

Kasu batzuetan, zolata badago, eta maila egokiraino igo behar da (adibidez, elizaren eta udaletxearen arteko plaza-zatia, non galtzada-harria eta hareazko ohea kentzen diren, baina zolata mantentzen den).

Etxebizitzen arkupearen aurrean dagoen espaloiaren azpian dagoen zolata ere aprobetxatzen da.

ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

Udaletxearen alboko fatxadaren ondoan dagoen zolata inprimatua topografia bidez egiaztatu beharko da aprobetxatu daitekeen, edo, ahal bada, gainazaleko fresaketa egin ondoren erabil daitekeen.

Gainerako espazioetan, ahal den neurrian (proiektuan aurreikusitako koten arabera), egungo aglomeratua mantendu egingo da, eta haren gainera zuntzdun hormigoizko geruza bat isuriko da, asfalto urturako aurreikusitako mailaraino. Eta hori posible ez denean, zolata bat berrengingo da: oinarri azpiko geruza baten gainean eta zabor-legar artifizialezko oinarria duen beste geruza baten gainean, 25 zm-ko lodierakoak bakoitza.

2 asfalto urtu mota aurreikusten dira.

Antolamenduaren zatirik handienean, kolore naturaleko asfalto urtua planteatzen da, 2,5 zm-ko lodierakoa, bi leunketa esku, eta kareharrizko agregakin zuria isuriz, 6/8 mm-koa.

"Ibilgailuen pasabide" gisa aurreikusitako zerrendan, 2,5 cm-ko lodierako asfalto urtua planteatzen da, 6/12 mm-ko agregakin beltza isuriz, eta galtzada-harrizko inprimaki batekin.

GI-3650 errepideko zebrabide goratuan, bakoitzak 5 zm.ko lodiera duen aglomeratuzko bi geruza aurreikusten dira eta harrizko azken inprimakia izango du.

Etxebizitzen arkupeko espaloietan eta edukiontzien eremuan, 40 x 40 cm-ko baldosa hidraulikoa planteatzen da.

Kale Nagusiko espaloian, GI-3650 bidearen beste aldean, baldosa hidrauliko hexagonala planteatzen da, bi alboetan eta tarteko ebaketa-zerrendetan zerrenda beltzak dituelarik.

Zebrabide goratuarekin topo egitean, irisgarritasuna konpontzeko, botoidun eta zerrenda baldosak planteatzen dira.

8- LOREZAINTZA – ALTZARIAK – SEINALEZTAPENA

8.1.- Lorezaintza

Ez da berdegune berririk planteatzen, ezta zuhaitzik landatzea ere.

Gaikako zaborren edukiontziak jartzeko, Kale Nagusira doan lerrokaduratik egungo zuhaitzetako bi kendu behar dira.

8.2.- Altzariak

Bankuak: Antolamenduan hainbat motatako bankuak proposatzen dira. "In situ" hormigoiz egindako bankuak (udaletxearen atzeko plazatxoan), banku aurrefabrikatuak, elizaren arkupetik gertu kurbadura desberdina dituzten blokeak (Escofet etxearen SERP modeloa), altzairuzko egitura eta zurezko lamak dituzten tamaina desberdinetako "Fabregas" eserlekuak, eta egurrezko lamazko "Benito" etxeko banku zirkularrak bi zuhaitz inguratuz.

Bizikleta-aparkalekuak: Gaur egun daudenak birkokatzen dira

Txorkoak: bi motatako korten altzairuzko txorkoak aurreikusten dira. Txorko biribilentzat, txorkoa bertikala izango da. Lorategientzat, altzairuzko korten txorkoak inklinatuak izango dira. Horiek guztiek hirigintza antolaketaren zolari lotzen dira.

Paperontziak: Eko4 modelokoak, 90 litrokoak.

Barandak - eskubandak: Altzairu herdoilgaitzezkoak. Ordenazioan aurreikusitako bi arrapalen alboetan jarriko dira, eskubanda bikoitzarekin (goikoa eta behekoa), eta eskaileran.

8.3.- Seinaleak

Oinezkoentzako eta bizikletentzako zebrabideak bi osagaizko pinturaz seinaleztatuko dira, termoplastikoa hotzean.

Bidegorriaren ibilbidea aurreikusitako ordenaziotik pasatzen denean, 150 mm-ko diametroko eta 3 mm-ko lodierako altzairu herdoilgaitzezko plaka biribilen bidez seinaleztatuko da, bizikleta eta gezi piktograma hustuekin, lurrean ahokatuta.

Seinale bertikalak jarriko dira oinarrizko norabideak adierazteko, bata, Kale Nagusitik doan sarbidean eta bestea, Agirreko Gainara sartzeko aurreikusitako koexistentzia tartean.

Araututako trafikoaren sarbideak seinaleztatzeko 900 x 1350 mm-ko ondo hori fluoreszentea duten aluminiozko xafla laukizuzen itxurako kartel errotulatuak jarriko dira. Seinalearen euskarriek 4 metroko altuera izango dute, eta zilar kolorezko aluminio anodizatuzko akabera izango dute.

6 gezi adierazle dituen norabide seinale bertikal bat ere jarriko da.

8.4.- Semaforizazioa

GI-3650 errepidearen gaineko zebra-bidearen semaforizazioa burutzen da.

ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.
Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

9.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEA BETETZEA.

Proiektu honek irisgarritasuna sustatzeko Legea betetzen du.

Antolamenduan aurreikusitako zebrabide berria altxatua da, zintarriak saihesteko.

Kalearen kota igo egingo da etxebizitzen arkupearekin eta oinezkoentzako erabilerako urbanizazio-eremuarekin (plaza nagusia) parekatu arte. Gune hauen kota mantendu egingo da gaur egun bidearekin alderatuta altuagoak bait daude.

Ondorengo taulan Irisgarritasuna Sustatzeko Legea betetzen dela justifikatzen da:

ANEXO – CUMPLIMIENTO DE NORMATIVA SOBRE ACCESIBILIDAD EN EL ENTORNO URBANO

APARTADO	**NORMATIVA.** Decreto 68/2000 de 11 de Abril. **Anejo II**	**PROYECTO**
ITINERARIOS PEATONALES (Anejo II. Art.3.2) Públicos y Privados de uso comunitario.	**ANCHO** Min. General: A ≥ 200 cm Si densidad. d≤12viv/ha: A ≥ 150 cm, con rellanos intermedios ∅=180cm/20m máx. **PENDIENTE** Longitudinal: P ≤ 6% Transversal: P ≤ 2%. Recomd.1,5% **ALTURA** Libre de paso: h ≥ 2,20m **BORDILLO** acera Altura máxima.: h ≤ 12cm Excepcionalmente, cuando en la construcción de itinerarios peatonales aparezcan contradicciones con la normativa urbanística o sectorial concurrente en el área o sean de difícil materialización por razones topográficas, será preciso justificar la solución en un informe de los Servicios Municipales, previo a la concesión de licencia.	A > 200 P = 6 % P = 2 % h = h= 0
PAVIMENTO (Anejo II, Art.3.3.)	**Pavimentos Duros** . Antideslizante y sin resaltos. **Pavimentos Blandos**. Suficientemente compactados, que impidan deslizamientos y hundimientos. **Rejas y registros** de los itinerarios y pasos peatonales, enrasados con el pavimento circundante de material antideslizante aún en mojado, serán de cuadrícula de apertura ≤ 1,0x1,0 cm, si invade el ancho mínimo. del itinerario peatonal y sino de 2,5x2,5cm. **Alcorques.** Serán elementos enrasados al pavimento y no deformables. De ser enrejados cumplirán con lo anteriormente dispuesto para Rejas y registros. **SEÑALIZACIÓN** Anejo IV: De Desniveles, Depresiones y Cambios de Cota, mediante **Franjas Señalizadotas,** Perpendiculares al sentido de marcha, de Anchura ≥ 1m y con Pavimento de textura y color diferentes.	☒ ☐ Rejilla=2,0cm
VADOS DE VEHÍCULOS (Anejo II, Art.3.4)	El itinerario peatonal que atraviesen no debe verse afectado por pendientes superiores a las definidas para los itinerarios peatonales. Cuando lo anteriormente expuesto no pueda darse, al menos 150cm de acera respetarán dichas pendientes. Si la acera fuese de 150cm, se deberá rebajar el bordillo.	
PASO DE PEATONES (Anejo II, Art.3.5)	**VADO PEATONAL.** Planos inclinados: ANCHO mínimo a cota de calzada = Paso peatones: A = 20 m PENDIENTE Longitudinal: P ≤ 8%: P = Transversal: P ≤ 1,5%: P = 1% **ACERA** a respetar de anchura: A ≥ 150 cm: A = En aceras estrechas rebajar la acera en todo el ancho del paso peatonal con planos inclinados que respeten las pendientes fijadas **ISLETA** A nivel de calzada ANCHO A ≥ 2m. en viales con doble sentido y tres o más carriles: A = **SEÑALIZACIÓN** Anejo IV: El pavimento en las isletas y en el ancho del vado peatonal ampliado en un metro en todo su perímetro será igual a la **franja señalizadora**, materializado a través de baldosas u otro tipo de material con protuberancias o tetones de 25mm de ∅, 6mm de altura y 67mm de separación entre centros, antideslizantes y contrastadas en color.	
PARQUES, JARDINES, PLAZAS (Anejo II, Art.3.6)	**ANCHO** (CAMINOS y SENDAS) A ≥ 2,00 m: A = **DESNIVELES** Mediante Itinerario Peatonal: A = P= **DESNIVELES ≥ 0,40m** Elementos continuos de protección	
ESCALERAS (Anejo II, Art.3.7)	**DIRECTRIZ** recta: Directriz = Directriz caracol o abanico, si huella mínima ≥ 35 cm: RECTA **ANCHO** A ≥ 200 cm: A = cm **HUELLA** h ≥ 35 cm: h = 35 cm **CONTRAHUELLA** t ≤ 15 cm: t = 15,5cm Prohibido sin contrahuellas **Nº PELDAÑOS** mínimo -máximo 3 ≤ Nº ≤ 12: Nº =8 Extremo libre escalón resalto h ≥ 3 cm: h = **DESCANSILLO**. FONDO B ≥ 150 cm: B = **PASAMANOS** Para cualquier ancho Obligatorio a ambos lados Para ancho ≥ 240 cm Además intermedio	

		uno a	H = 100 ± 5 cm	H = 100cm.
		otro a	H = 70 ± 5 cm	H = 70cm.
	Prolongación en los extremos		L = 45 cm	L = 45cm.
	ALTURA LIBRE bajo escalera		H ≥ 220 cm	H =
	Intrados del tramo inferior		Cerrarlo hasta 220cm	
	PAVIMENTO		Antideslizante	
	BANDAS en borde peldaño		A = 5-10cm, antideslizantes y de textura y color diferentes	A =
	SEÑALIZACIÓN Anejo IV: Se dispondrá señalización táctil en los accesos. y mediante franja señalizadora en los itinerarios peatonales. Se dispondrán placas de orientación en los pasamanos de los edificios públicos de interés general y vestíbulos con varias opciones			
RAMPAS (Anejo II, Art.3.8)	**ACCESOS**		∅ ≥ 180cm	∅ = 200 cm.
	PENDIENTE			
		Longitudinal	P ≤ 8 %	P = 8 %
		Transversal	P ≤ 1,5 %	P = %
	ANCHURA		A ≥ 200 cm	A = cm
	BORDILLO LATERAL		H ≥ 5 cm	H = cm
	LONGITUD máxima sin rellano		L ≤ 10m	L = 6 m.
	RELLANO INTERMEDIO. Fondo		B ≥ 200 cm	B = cm.
	PASAMANOS:			
	Para cualquier ancho		Obligatorio a ambos lados	
		uno a	H = 100 ± 5 cm	H = 100 cm
		otro a	H = 70 ± 5 cm	H = 70 cm
	Prolongación en los extremos		L = 45 cm	L = cm
	PAVIMENTO		Antideslizante	
	SEÑALIZACIÓN Anejo IV: Mediante franja señalizadora en los itinerarios peatonales. Se dispondrán placas de orientación en los pasamanos de los edificios públicos de interés general y vestíbulos con varias opciones.			
ESCAL. MECANICAS, TAPICES RODANTES Y ASCENSORES (Anejo II, Art.3.9)	Cuando se instalen en los espacios públicos este tipo de elementos se estará a lo dispuesto en esta ficha en cuanto a accesibilidad y señalización y en cuanto a construcción ficha referente al Anejo III.			
APARCAMIENTOS (Anejo II, Art.3.11)	**RESERVA** 1 cada 40 plazas o fracción			Nº =
	Recorrido peatonal entre dos reservas ≤ 250m			R =
	Situación junto a accesos y cerca itinerarios peatonales			
	Si reserva próxima a paso peatones. Espacio libre		A ≥ 200 cm	A=
	ANCHO de plaza		A ≥ 360 cm	A =
	LARGO de plaza		L ≥ 600 cm	L =
				Tipo =
	En BATERÍA, si no es posible L = 600cm se admite L=500cm. En LINEA si no es posible A = 360m se admite la del resto de vehículos manteniendo el largo establecido debiendo ser las reservadas colindantes al paso peatonal..			
	SEÑALIZACIÓN: Mediante símbolo internacional de accesibilidad en el plano vertical y horizontal y prohibición de aparcar al resto de vehículos.			
ASEOS PÚBLICOS (Anejo II, Art.3.12)	**RESERVA** Si se instalan aislados		Accesibles	Nº
	Si hay agrupación		Minusválidos	Baños =
			1 por sexo por /10 o fracción.	Nº reservas=
	DISTRIBUIDOR ASEOS		∅ ≥ 180cm	∅ =
	PUERTAS, De distribuidor y cabina adaptada.		A ≥ 90cm	A = cm
	Zócalo protector en ambas caras de la hoja		A ≥ 30cm	
	BATERÍA URINARIOS: Al menos uno a		h = 45 cm, sin pedestal	Nº= h =
	CABINA INODORO ADAPTADA			
	ESPACIO LIBRE	∅ ≥ 150cm, recomen. ∅ ≥ 180cm		∅ =
	LAVABO, contará al menos con uno a		h = 80cm	h=
	INODORO		h= 45-50cm	h=
		Separación de exterior a pared	d ≥ 70cm	d =
		Espacio libre lateral	a ≥ 80cm	a =
		Barras laterales	h = 80±5cm	h =
			L = 80-90cm	L =
		Distancia barras al eje inodoro	d = 30-35cm	d =
	PAVIMENTO	Antideslizante en seco y mojado		☐
	SUMIDEROS	Enrasados. Rejillas de ranuras	r ≥ 1,0cm x 1,0cm	r =
	ACCESORIOS	Espejos borde inferior a	h ≤ 90cm	h =
		Perchas, toalleros, etc	h = 90-120cm	☐
	ALARMA	Tipo cordón o similar a	h = 40cm	☐
	SEÑALIZACIÓN: Mediante símbolo internacional de accesibilidad colocado en la puerta de la cabina del inodoro.			

MOBIL. URBANO (Anejo II, Art.4)	Se entiende como tales, al conjunto de objetos a colocar en los espacios exteriores superpuestos a los elementos de urbanización; Semáforos, Señales, Paneles Informativos, Carteles, Cabinas telefónicas, Fuentes públicas, Servicios Higiénicos, Papeleras, Marquesinas, Asientos y otros de análoga naturaleza. **NORMAS GENERALES** Se dispondrán de forma que no interfieran la accesibilidad Se diseñarán y ubicarán de forma que puedan ser utilizados por personas con dificultad en la accesibilidad. En las aceras se colocaran en el borde exterior, sin invadir los 200cm de itinerario peatonal o 150cm en densidades de 12viv/ha, ni invadir vados y pasos peatonales. Se dispondrán alineados longitudinalmente en el itinerario peatonal **Elementos salientes de fachada** fijos o móviles que interfieran un itinerario peatonal, Marquesinas, etc $h \geq 220cm$ Elemento fijo o móvil a $h < 220cm$, se prolongará hasta el suelo. **Elementos Trasparentes** **2** Bandas de colocadas a = 20cm, una a h = 90cm otra a h = 150cm	h = ☐
SEMAFOROS (Anejo II, Art.4.2.2.1)	Contarán con señal acústica, con emisores orientados hacia el otro lado de la calzada, recomendable emisor de activación a distancia por el discapacitados. h = 90-120cm **Semáforos manuales**, pulsador h = 90-120cm	☒
TELEFONOS (Anejo II, Art.4.2.2.2)	**RESERVA** Si se instalan aislados Accesibles a Minusválidos Si hay agrupación 1 /10 o fracción. En los Locutorios Un teléfono adaptado (a personas con problemas de comunicación) **Cabinas y Locutorios** Cumplirán parámetros accesibilidad en los edificios **TELEFONO ACCESIBLE** Acceso frontal a su uso, espacio libre $\varnothing \geq 180cm$ Aparatos, diales, monederos y tarjeteros h = 90cm Repisa h= 80cm Bajo libre h = 70cm Baterías Teléfonos Laterales primero y último hasta el suelo	Nº = $\varnothing$ = h = ☐
MAQUINAS EXPENDEDORAS (Anejo II, Art.4.2.2.4)	Incorporarán sistema Braille, altorrelieve y macrocaracteres Diales y Monederos h = 90cm Recogida de billetes o productos h = 70cm	☐
CONTEDORES, PAPELERAS, BUZONES, o análogos (Anejo II, Art.4.2.2.5)	**BOCAS** h = 90cm **CONTENEDORES** Fuera del itinerario peatonal	h = 90 cm ☒
FUENTES y BEBED. (Anejo II, Art.4.2.2.6)	Aproximación a cota Rejillas antideslizantes en seco y mojado $\geq$2,5cm x 2,5cm Si el accionamiento es manual $h \leq 90cm$	☐
BANCOS (Anejo II, Art.4.2.2.7)	Asiento con respaldo y reposabrazos h = 40-50cm Reposabrazos h = 20-25cm Distancia máxima entre varios bancos d = 50m Complementariamente a los anteriores y ajustándose a las condiciones ergonómicas para sentarse y levantarse se podrán utilizar otros.	☒ ☒ d = 40
BOLARDOS (Anejo II, Art.4.2.2.8)	Los Bolardos o Mojones serán visibles por color y volumen, no susceptibles de enganches.	
P. INFORMACION (Anejo II, Art.4.2.2.9)	Sistemas de Información Interactivo (Anejo IV) Acceso con espacio libre $\varnothing \geq 180cm$ Teclado, ligeramente inclinado h = 90-120cm Pantalla entre 30-40º inclinación h = 100-140cm	$\varnothing$ = ☐ ☐
PARADA AUTOBUS MARQUESINA (AnejoII, Art.4.2.2.10)	En zona de espera y andén un lateral de ancho libre 180cm Si tiene asientos h = 40-50cm Si tiene elementos trasparentes: 2 Bandas señal colocadas a = 20cm, una a h = 90cm otra a h = 150cm Parada por plataforma desde la acera, tendrá mismo pavimento que esta y podrá tener bordillo a 20cm.	A = ☐

ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.
Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

MOSTRADORES Y VENTANILLAS (Anejo II,Art.4.2.2.11)	Altura máxima h ≤ 110cm Dispondrá de un tramo de mostrador de: L = 120cm h= 80cm con hueco libre inferior de F = 50cm h = 70cm	h = ☐
ELEMENTOS PROVISIONALES. Protección y Señalización (Anejo II, Art.4.3)	La protección será mediante vallas estables y continuas que no tengan cantos vivos, no sean autodeslizantes y resistan al vuelco. **Prohibido la sustitución de vallas por mallas, cuerdas, cables o similares** Distancia del vallado a zanjas, acopios, etc d ≥ 50cm **Luces Rojas,** deberán tener los elementos de protección y permanecerán encendidas en horarios de iluminación insuficiente. **Itinerario peatonal garantizado** a ≥ 150cm Si la acera fuese menor de 150cm a = Acera Elementos de andamiaje arriostrando a h ≤ 220m, deberán ser señalizados y protegidos adecuadamente hasta el suelo en longitudinal al itinerario.	d = a =
OBSERVACIONES		

Bergara, 2.025ko urria

Sin.: Xabier Berasategi

Sin: Elisabeth Ena

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

10.- TITULARTASUN PRIBATUKO ARAUDIAK

Proiektu honetan Aldizkari Ofizialen bidez eskuragarriak ez diren titulartasun pribatuko araudi espezifikoak egiaztatzea ez da posible izan.

11.- LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO AZTERLANA. KALITATE-KONTROLA

Martxoaren 11ko 462/1971 Dekretuaren A.1 artikuluak xedatzen duen arabera, Proiektuaren egokitzapen honetan indarrean dauden eraikuntza arauak bete dira proiektuaren egiaztapen data arte. Laneko Segurtasun eta Osasun Azterlana Xabier Berasategui eta Elisabeth Ena arkitektoek osatutako Elkarlan Estudioa S.L.P.-k idatzi du.

Kalitatea Kontrolatzeko Programa Xabier Berasategui eta Elisabeth Ena arkitektoek osatutako Elkarlan Estudioa S.L.P.-k idatzi du.

12- ERAIKUNTZAREN KODE TEKNIKOA.

Proiektu honek, aplikatu beharrezkoak diren ataletan Eraikuntzaren Kode Teknikoak xedatutakoa betetzen du, bereziki DB-SUAren honako atal hauetan:

ELKARLAN ESTUDIOA, S.L.P.
Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

12.1.- DB-SUAren JUSTIFIKAZIOA. ERABILERAREN-SEGURTASUNA

San Migel Plaza berrurbanizatzeko obra dela kontuan hartuta, DB-SUA aplikatuko zaie aldatutako elementuei, betiere baldintzak esku-hartzearen izaerarekin bateragarriak badira.

Oinarrizko Dokumentu honek (OD) zehazten ditu erabileraren segurtasunari dagozkion oinarrizko eskakizunak betetzeko ahalbidetzen duten arauak eta prozedurak. OD honetako atalak ESI 1 eta ESI 9 arteko oinarrizko eskakizunekin bat datoz. Atal bakoitza behar bezala aplikatzeko dagokion oinarrizko eskakizuna bete behar da. OD osoa behar bezala aplikatzeak esan nahi du oinarrizko "Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna" betetzen dela.

SUA 1 SEKZIOA, ERORTZEKO ARRISKUAREN BABESTEKO SEGURTASUNA

Lurzoruen labainkortasuna

Kanpoalderako kalea denez, zoladurak 3. motako labainkortasuna izango du gutxienez (Rd>45)

Desnibelak

55zm-tik gorako maila aldaketarik ez denez aurreikusten, ez da beharrezkoa maila desnibelak babestea.

Erabilera publikoko eremuetan maila aldaketen pertzepzioa erraztuko da ikusmena eta ukimenaren bidez baldin eta desnivela gehienez 55 cm-koak badira eta erorikoak eragin baditzakete. Bereizketa, ertzetik 25 cm-ra hasiko da, gutxienez.

Proiektuan aurreikusitako desnivel bakarra (eskailera eta rampak kontuan hartu gabe) plaza atzeko oinezko gunea eta Kale Nagusiako ibilgailuentzako bidea bereizten duena da. Altuera 22 zm ingurukoa da eta hondakinen ontziekin mugatzen da.

SUA 2 SEKZIOA, TALKA EGITEKO EDO HARRAPATZEKO ARRISKUARI AURRE EGITEKO SEGURTASUNA

Inpaktua. Elementu finkoekiko inpaktua

Zirkulazio eremuetako, pasabide libreko altuera, gutxienez, 2.100 mm-koa izango da erabilera mugatuko eremuetan, eta 2.200 mm-koa gainerako eremuetan.

Zirkulazio-eremuetan, hormek ez dituzte elementu irtenik izango honako kasuetan izan ezik: lurretik ez badira abiatzen, 150 mm-tik gorako hegala badute lurretik abiatuta 150 mm-tik 2200 mm-ra bitarteko altuera badute, eta kolpe arriskua badute.

SUA 4 SEKZIOA SEGURTASUNA, ARGIZTAPEN DESEGOKIAK ERAGINDAKO ARRISKUAREN AURREAN

Argi arruntak zirkulazio-eremuetan

Kale osoak lurzoruaren mailan 20 luxeko gutxieneko argiztapena emateko instalazioa izango du (kanpoaldean). Argiztapenaren batez besteko uniformetasun-faktorea % 40 izango da gutxienez (ikusi argiztapenari buruzko memoriaren atala).

Barrenkale 7, 1º – Tf. 943760346
C.P.20570 – Bergara (Gipuzkoa)

13.- AURREKONTUA. GAUZATZEKO EPEA

Irurako (Gipuzkoa) San Migel plaza urbanizatzeko proiektuaren exekuzio materialaren aurrekontua honako hau da:

1	ERAISPENAK	45.047,84
2	INDUSKETAK / INSTALAKUNTZEKO ZANGAK.	28.392,39
3	OINARRIAK ETA SOLATAK	61.501,59
